


8. BALIABIDEAK

8.1: Baliabide arloak:

Gure negozio ereduak funtziona dezan lau arlo hartu behar dira kontuan:

8.1.1: Baliabide fisikoak

8.1.1.1: Lantegia



Hau izango litzateke gure produktua sortzeko behar dugun lantegia. Funtsezkoa erlojua fabrikatzeko. Beste alde batetik, erlojua egiteko behar diren piezak, pantaila, erlojuko uhala, teknologiari dagozkion gauza guztiak eta programatzaileak...

Lantegiarekin hasiz, Urartea kalean dagoen bat aukeratu dugu. Izan ere, Gasteizko industrialdean dago kokatuta. Gainera, ondo konektatuta dago beste errepide batzuekin Gasteiztik ateratzeko. Beste aukera batzuk begiratu eta gero, egokiena dela pentsatu dugu.

2.349 m² ditu eta m² bakoitza 291€ balio dute, orduan, 683.559€ kostatuko zuen lantegia.



683.000 €

2.349 m² 291 eur/m²

Se trata de una nave industrial ideal para empresas con necesidades de grandes espacios. Tiene orientación este-oeste...

945 346 279

Beherapen bat aurkitu

dugu non 683.000 €tan uzten digutena. Lekua ezin hobea da, giro industrialak baitago eta prestatuta dagoelako horrelako enpresentzat.

Oso handia denez, gure eginkizun guztiak egin ahalko genituen lantegi horretan. Baina behar ditugun materialak (gomazko uhalak, pantailak, piezak...) beste enpresa batzuetatik lor ditzakegu. Ali Gobeon dagoenez lantegia, lagungarriak izan daitezken enpresak inguruan eduki ditzazkegu.

8.1.1.2 Material egituraketa

Materialaren kasuan, gure enpresak erloju bereziak egiten dituenek, askotarikoak dira behar ditugun material guztiak. Hori bai, eskariaren arabera eskatu eta fabrikatuko ditugu. Hasteko, uhalari dagokionez, gomazko uhala fabrikatuko genituzke eta eusteko behar diren metalezko piezak. Pantaila ere eros beharko genuke, eta pantaila egoki funtzionatzeko behar duen plaka elektronikoa. Beste alde batetik, gure produktua fabrikatzeko beste gauza asko izan behar ditugu kontuan, eta lantegia ondo prestatuta egon behar da horretarako, hau da, ordenagailuak, altzariak, argia... Hau guztia kontuan izanda, gure produktua fabrikatzea kostatu zaigunari gehitu behar zaio ere material guzti honen kostua eta etekina ateratzea ere gogoan izanda.

8.1.2 Baliabide intelektualak

Oso garrantzitsua da gaur egun teknologia erabiltzea bezero eta enpresaren arteko harremanak finkatzeko. Gure enpresa hainbat plataformetan egotea ezagunagoak izatea eta eskuragarritasuna errazagoa izatea ahalbidetzen du. Horregatik, web-orri bat izatea eta sare sozialetan kontuak irekitzea nahitaezkoa da.


8.1.2.1 Web orria

Gure bezeroentzat gure informazioa erraz aurkitzeko web orri bat sortu dugu (<https://dailyclock.weebly.com>) web orri honetan era askotako informazioa ipiniko genuke, bezero eta gure arteko lotura sendotzeko. Han gure kontaktua, non gaude, inkesta bat eta abarrekoak aurkituko dute.

8.1.2.2 Sare Sozialak

Web orri baten gainera, sare sozialak gaur egungo gizartean oso garrantzitsuak dira, eta nahitaezkoak gure enpresa ezagunagoa egiteko, batez ere, gazteen artean. Web orria ordenagailuarekin maneiatzeko ondo dago, baina mugikor batekin hobeagoa da instagramen kontu bat izatea. Horregatik, gure azterna sare sozialetan uztea erabaki dugu.

Instagrameko kontua: @dailyclock



8.1.3 Giza baliabideak

Hau guztiaz gain, garrantzitsuena behar dugu: lan egiten duten pertsonak. Lan talde batean ezinbestekoa da guztiak bere zatia egitea eta haman komunean jartzea.

Gure enpresan **Maidar Arnaiz** izango da zuzendari orokorra. **Izaro Esteban** enpresaren gerentea, **Garazi Lopez** produkzioaren zuzendaria. Finantza zuzendariak, **June Jungitu** eta **Izaro Uriarte** dira.

Honetaz gain, 10 langile kontratatuko ditugu, hasteko. Enpresa handiagoa egiten joaten den eanean eta produkzioa handitzen den eanean langile gehiago izan beharko ditugu, baina hasteko 10ekin balio zaigu. Hauek erlojuaren produkzioaz arduratuko dira. Erlojuaren sistema informatikoa diseinatu, montatu eta erlojua produzituz. Langile honen sinergia totala lortzeko gune berdinean lan egingo dute.

8.1.4 Finantza baliabideak

Enpresa martxan jartzeko hainbat iturrietatik dirua lortu behar izan dugu. Lehenik eta behin, sozietate anonimoa garenez, bakoitza bere parte jarritz, 60.000 euro lortu ditugu. Bakoitzak jarri duen diruaren arabera banatuko ditugu gero ondasunak. Bankuak, gainera, 4000 euroko subentzioa eman digu, eta lokala erosteko 6830 euroko mailegua eskatu dugu, 25 urtetan itzuliko duguna.

8.2 Aplikazio moduak

Baliabide hauek aplikatzeko zenbait modu daude. Gure kasuan externalizazioa edo azpikontratazio metodoa erabiliko genuke. Azpikontratazioa enpresa bati dagozkion funtzio nahiz jarduera zenbait beste enpresa bati esleitzeari deritzo, kontratu baten bitartez. Horrela, malgutasun laborala lortuko genuke, baliabide eskuragarritasuna handituz eta kostuetan murriztuz.